



EBAZPENA, 2023ko MAIATZAREN 4KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. EBAZPEN HORREK PARTE-HARTZAILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DU PROZEDURA HONI DAGOKIONEZ: LAN-KONTRATUDUN LANGILE FINKOEI, LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO BITARTEKOEI ETA MUGAGABE EZ-FINKOEI 2022/23. IKASTURTERAKO IKASTETXEEN ESLEIPEN TELEMATIKO PARTZIALA, BERRITZEGUNERA ATXIKITAKO FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL ETA HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA KATEGORIETAN.

Zonako Berritzeguneetako lanpostuei atxikitako langileen artean ikastetxeak esleitzea lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialistaren kategorietan, langileak planifikatzeko eta kudeatzeko ondoz ondoko jardueraz osatutako prozesu baten hasiera da. Prozesu horren helburu nagusia hasten den ikasturterako matrikularen araberrako hezkuntza-zerbitzua emateko beharrezkoak diren hezkuntza bereziko plazak zehaztea da, eta ikastetxeei beren jarduera gauzatzeko hezitzaile egokiak eta nahikoak ematea.

Zonako Berritzeguneetako lanpostuei atxikitako langileen artean ikastetxeak esleitzea lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialistaren kategorietan Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko Aginduan dago araututa. Agindu horren bidez, lanpostuaren adjudikazioa arautzen zaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzzaile eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta ezartzen da lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan

Aginduan araututako prozedura honen premisetako bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen Hitzarmen Kolektiboa da. Hitzarmen horren 14. artikuluan langile horiek artatu beharreko ikastetxeen banaketa arautzen da.

Prozesua urtero deitzen da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez. Ebazpen hori ekainaren hasieran argitaratuko da Hezkuntza Sailaren webgunean, eta bertan egutegia eta parte-hartzaileen zerrenda zehaztuko dira.

Une horretarako parte-hartzaileek parte hartuko duten pertsonen zerrenda berrikusteko eta, hala badagokio, egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten, ebazpen hau ematen da, eta, bertan, parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda eta ikastetxeak esleitzeko prozesuan ezarritako irizpideetan bakoitzari aplikatuko zaizkion datuak argitaratzen dira.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda.

Ebazpen honen eranskin gisa argitaratzen da 2023/24 ikasturterako zonako Berritzeguneetako lanpostuetara atxikitako langileen artean ikastetxeak esleitzeko prozesuan parte hartuko dutenen behin-behineko zerrenda, lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratua edo lan-harreman mugagabe ez-



finkoa duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialistaren kategorietan.

Parte-hartzaile horiek nahitaez parte hartu beharko dute ikastetxeak esleitzeko prozesu horretan.

Zerrenda horretan parte-hartzaile bakoitzari buruzko datuak jasotzen dira, prozeduran aplikatu beharreko lehentasun-irizpideei eta berdinketa hausteari dagokienez.

Horretarako, honako hau adierazten da:

- Oro har, antzinatasuna 2011ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte kalkulatu da. Aurrekoa gorabehera, berdinketa gertatuz gero, 2009ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte kalkulatu da. Berdinketak jarraitzen zuen kasuetan, ahalik eta informazio gehien bildu da 2009ko irailaren 1a baino lehenagoko antzinatasuna lortzeko eta berdinketa hausteko. Kasu horiek izartxo batekin adierazten dira izen-abizenen ondoan. Jasota geratzen da kasu guztietan ez dela posiblea izan informazio hori lortzea.

Aurreko urtean beste parte-hartzaile batekin berdinketa izan arren aurten berdinketarik izan ez duten langileei dagokienez, ikastetxean duten antzinatasuna berriro kalkulatu da irizpide orokorraren arabera, hau da, 2011ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte. Kasu horiek bi izartxorekin islatzen dira, izen-abizenen ondoan.

- Berritzeguneko antzinatasuna 2023ko abuztuaren 31n kalkulatu da. Parte-hartzaileei ahalik eta informazio gehien emateko, eranskinean Berritzeguneko antzinatasuna zenbatzen hasteko kontratua adierazten da. Kontratu horretatik aurrera emandako zerbitzuak izango dira Berritzeguneko antzinatasunerako zenbatutakoak, eta kontuan hartu beharko da data horretatik aurrera benetan emandako zerbitzuak baino ez direla zenbatzen.

- Kolektiboko antzinatasuna (Hezkuntza Sailarentzat emandako zerbitzuak) 2023ko abuztuaren 31ko datan kalkulatu da.

Bigarrena.- Erreklamazioak.

Parte-hartzaileen behin-behineko ebazpen horren aurka, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira 2023ko maiatzaren 5etik 2023ko maiatzaren 7ra.

Erreklamazioak idazki sinatu baten bidez aurkeztuko dira, eta helbide elektronikoa honetara bidali beharko dira: hezk.sind@euskadi.eus.

Hirugarrena.- Parte-hartzaileen behin betiko zerrenda.

Aurkeztu diren erreklamazioak aztertu ondoren, parte-hartzaileen behin betiko zerrenda ebazpen baten bidez argitaratuko da. Ebazpen horren bidez, 2023/24 ikasturterako ikastetxeak esleitzeko prozedura telematikoa partziala deituko da zonako Berritzeguneetako lanpostuetara atxikitako langileen artean, lan-kontratu finkoa, lanpostu hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratu edo lan-harreman mugagabe ez-finkoa duten fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialistaren kategorietan.

Ebazpen horretan argitaratuko dira erreklamazioak baiesteko/ezesteko arrazoiak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 4an
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA GUERRERO OCEJO